Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko martxoaren 26a, ostirala — 57 — Viernes, a 26 de marzo de 2021

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## OIARTZUNGO UDALA

*Oiartzungo Udalaren 2019ko eta 2020ko ekitaldietarako Enplegu Publikoaren Eskaintza aldatzea.*

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko martxoaren 9an egindako bileran, honako hau erabaki du:

*Lehenengoa.* Tokiko Gobernu Batzarrak, 2019ko abenduaren 11ko erabakiaren bidez onartutako 2019ko Enplegu Publikoaren Eskaintza aldatzea, eta barne promozioa sistemaren bidez jasotzen zen Obra eta Zerbitzuen arduraduna lanpostuari dagokion Administrazio Bereziko Eskalako Zerbitzu bereziak Azpieskalako Ofizioetako Langilea motako plaza ezabatzea.

*Bigarrena.* Tokiko Gobernu Batzarrak, 2020ko irailaren 15eko erabakiaren bidez onartutako 2020ko Enplegu Publikoaren Eskaintza aldatzea, eta gizarte langilea lanpostuari dagokion Administrazio Bereziko Teknikari plazara sartzeko sistema oposizio-lehiaketa librea izango dela jasotzea, eta ezabatzea aldi baterako enplegua egonkortzeko prozeduraren bidez izango dela.

*Hirugarrena.* Honako erabaki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea eta laburpen bat *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian,* Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 legearen 24. artikuluak xedatutakoari jarraiki. Halaber, udaleko webgunean argitaratzea.

Erabakia behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, interesatuek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Oiartzungo Tokiko Gobernu Batzarrari hilabeteko epean, jakinarazpenaren biharamunetik kontatzen hasita. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte.

Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Oiartzun, 2021eko martxoaren 12a.—Jexux Leonet Elizegi, alkatea. (1839)

## AYUNTAMIENTO DE OIARTZUN

*Modificación de la Oferta de Empleo Público del Ayuntamiento de Oiartzun para los ejercicios de 2019 y 2020.*

La Junta de Gobierno Local, en reunión celebrada el 9 de marzo de 2021, ha acordado:

*Primero.* Modificar la Oferta de Empleo Público de 2019, aprobada por Acuerdo de la Junta de Gobierno Local de 11 de diciembre de 2019, y suprimir la plaza de Personal de Oficios de la Subescala Servicios Especiales de la Escala de Administración Especial correspondiente al puesto de Responsable de Obras y Servicios, prevista su provisión mediante promoción interna.

*Segundo.* Modificar la Oferta de Empleo Público de 2020, aprobada por Acuerdo de la Junta de Gobierno Local de 15 de septiembre de 2020, y establecer que el sistema de acceso a la plaza de Técnica de Administración Especial correspondiente al puesto de trabajo de Trabajadora o Trabajador Social será el de concurso-oposición libre, suprimiendo la referencia al procedimiento de consolidación de empleo temporal.

*Tercero.* Publicar el presente Acuerdo en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y un extracto en el *Boletín Oficial del País Vasco*, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 24 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca. Asimismo, proceder a su publicación en la página web municipal.

La decisión es definitiva y pone fin a la vía administrativa, pudiendo las personas interesadas interponer directamente contra ella recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, con carácter potestativo y previo al recurso contencioso-administrativo, se podrá interponer recurso de reposición ante la Junta de Gobierno Local en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente a la fecha de publicación de este anuncio. En este caso, no se podrá interponer el recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el recurso de reposición o se haya producido su desestimación presunta.

Todo ello, sin perjuicio de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Oiartzun, a 12 de marzo de 2021.—El alcalde, Jexux Leonet Elizegi. (1839)

EK\CV GAO-I-2021-01839